

## Testuaren Analisia

**Kurtsoa: 2**

**Kreditu kop.: 3**

**Deskribatzaileak:**

- Semiotika dramatikoaren ezagutza, hautatutako testuen ikerketatik abiatuta.
- Genero dramatikoaren eta dramaren teoriaren ezagutza sorreratik, eta horien oinarritzko egitura-elementuak: espazioa, denbora, ekintza eta pertsonaia.
- Testua edo partitura dramatikoa aztertu eta baloratzeko dauden hainbat metodoren azterketa teoriko-praktikoa.
- Antzezlanaren gatazken azterketa.
- Pertsonaiak eta arketipoak aztertzea, alde psikologikoari eta gatazkek gertatzen zaizkieneko alde sozio-historikoari begiratuz.
- Azterketa-lana eta eszenaratzea batzen dituzten faseak aztertzea.
- Eszenaratzea osatzen duten gainerako hizkuntzekin integratzea.

**Konpetentziak:**

Ikasleak honako hauek egiteko gai izan behar du:

- Garai eta genero desberdinetako testu dramatikoaren elementu egiturazkoak, testuingurukoak, kulturalak, historikoak eta sozialak aztertu eta ikertzea.
- Aukeratutako testuak eszenan jarri aurreko mahaiko lana egitea.
- Gertakarien eta gatazken arabera aztertzea lanen egitura, testuaren edo partituraren osotasunari zein eszena edo sekuentzia bakoitzari begira.
- Pertsonaiak aztertzea, arketipo psikologikoak diren aldetik.
- Testu dramatikoaren teorian sakontzea.
- Dramaturgia-sorkuntzaren eta -konposizioaren oinarritzko estrategiak ezagutzea (norbanakoaren motibazioa eta irudimena esploratzea, haren antolaketa eta lanketa, etab.).
- Egitura dramatikoak eta horien eginkizuna identifikatzea, baita horien esanahia ere testu dramatiko tradizioaletan zein dramaturgia ez konbentzionaletan eta ikus-entzunezko gidoietan.
- Azterketa teorikotik ekintzara igarotzea, eszenan jartzeko eta pertsonaiak sortzeko ondorioak aterez.
- Irakasleek aztertzeko proposatutako jakineko eszenaratze batzuen dramaturgia-gakoak azaltzea.

### **Ebaluazio-irizpideak:**

Ebaluazioan, ikaslearen gaitasuna baloratuko da, honako helburu hauek lortzeko:

- Testu dramatikoak, ikus-entzunezkoak eta beste proposamen performatibo batzuen azterketa egiteko kontzeptuak eta oinarrizko tresna metodologikoak bereganatuta dituela erakustea.
- Testu edo partitura desberdinen elementuak aztertu eta identifikatzea, eszenaratzeko dituzten ezaugarriak, balio estetikoak eta gaitasunak baloratuz.
- Testu-analisia egiteko metodo eta tresna desberdina ezagutzea.
- Testu dramatiko edo ikus-entzunezko baten pertsonaien psikologia eta motibazioak ulertzea, baita ekintza sustatzen duten gatazkak ere.
- Testu bat analizatu eta eszenaratzeko proposamenak egitea.
- Eszenaratze baten irudiak eta ikurrak aztertzea.
- Balio-judizioak arrazoiz egitea eta irizpideak erakustea, antzerki eta ikus-entzunezko adierazpen desberdinetan egon daitezkeen harreman eta testuinguru artistiko, kultural, sozial eta historikoen gainean.
- Lan edo partitura dramatiko batzuen gainean eta horien eszenaratzeari dagokionez ideia originalak adieraztea modu sinesgarrian.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatzeak eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.